



**2019 OTSAILA - AUZO BATZARRAK**  
**ASAMBLEAS MUNICIPALES - FEBRERO 2019**  
**NEGUA - INVIERNO**

<b>Auzoa</b> Barrio	Gardea	
<b>Data</b> Fecha	2019-02-13	
<b>Ordutegia</b> Horario	19:00 – 21:30	
<b>Lekua</b> Lugar	Social Social	
<b>Bertaratutakoak</b> Asistencia	<p><b>*Ordezkaritza politikoa</b> representación política</p> <p>- <b>Alkate-udalburua</b> Alcalde-presidente, Jon Iñaki Urkixo Orueta</p> <p><b>Ordezkarriak</b> Representantes:</p> <p>- EH Bildu, Jon Ander Altube Lazkano - EH Bildu, Amets Meatza Castañares - EAJ-PNV, Ander Añibarro Maestre</p> <p><b>*Udal teknikariak</b> técnicas/os municipales</p> <p>- <b>Jarduneko Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Landa-ingurune Arloko burua</b> Jefe del Área Obras, Servicio, Mantenimiento y Medio Rural en funciones, Asier Goikuria - <b>Udal Arkitektoa</b> Arquitecta municipal, Almudena Fernández - <b>Jarduneko Obra arduraduna</b> Encargado de Obras en funciones, Joseba Solaun</p> <p><b>*Idazkaria</b> secretaria - <b>Dinamizatzailea</b> moderadora</p> <p>- Olatz Esgueva Landaluce</p> <p><b>*Auzokideak</b> vecinas/os</p> <p>-guztira/ total        23</p> <p>-neskak                    11</p> <p>-mutilak                   12</p> <p><b>*Kazetariak</b> periodistas</p> <p>-</p>	
<b>Gai-zerrenda</b> Orden del día	1_ <b>Aurkezpena</b> presentación 2_ <b>Gai orokorrak</b> cuestiones generales 3_ <b>Auzoko gaiak</b> cuestiones del barrio 4_ <b>Galderak</b> Preguntas	
	<b>Euskaraz</b>	<b>Erderaz</b>
<b>Edukia</b> Contenido	1_ <b>Aurkezpena</b>	1_ Presentación



	<p>Alkate-udalburuak bertaratutakoak aurkeztu ditu, hala mahaiko ordezkariak, nola langile teknikariak, eta laburki azaldu du nola bideratuko den saioa.</p>	<p>Alcalde presenta a los asistentes, tanto los representantes en la mesa como el personal técnico, y hace una breve explicación de cómo va ir dirigida la sesión.</p>
	<p><b>2_ Gai orokorrak</b></p> <p><b>GIZARTE POLITIKAK</b> -Pertsona zaharrentzako laguntzari dagokionez, itxaron zerrenda murriztu da eta 155 ke-detektore gehiago instalatu dira, batez ere, 80 urtetik gorako emakumeen etxeetan, haiek baitira egoera ahulenean daudenak. -Enplegu-programak. 28 kontratazio egin dira enplegu programen barruan, lanaldi osoan jarduteko.</p> <p><b>HAZ</b> -Lehenengo aldiz zerbitzua dago egun osoan. Astelehen eta ostegunetan 08:00etatik 19:00etara etengabe. Hasteko, urtebetez izango da, herritarrek nola hartzen duten ikusteko. -Idea da HAZ leihatila bakar bihurtzea.</p> <p><b>ANTZOKIA</b> -Laudion aurreikusita dauden proiektu kulturaletako bat da. Une honetan ideien lehiaketa dago martxan, martxoaren 4a arte. Gero, maiatzaren bukaeran jakingo dugu zein den Altzarrateko antzokirako azken proiektua. 336.501€</p> <p><b>LAMUZA PARKEA</b> -Berretsi egin da bi eraikin birgaitu direla Aldundiaren finantzazioarekin. -Lizitazioa martxan dago eta obrak udan hasiko dira. Kultura Etxe berriaren lehenengo fasea egikaritu da.</p> <p><b>KIROL INSTALAZIOAK</b> - Granja kiroldegia. Oinezkoen irisgarritasunerako proiektua idazketa-fasean dago. Gero, diru-laguntza eskatuko zaio Aldundiari.</p>	<p><b>2_ Cuestiones generales</b></p> <p><b>POLITICAS SOCIALES</b> -En la ayuda a las personas mayores, se ha reducido la lista de espera, se han instalado 155 detectores de humo más, sobre todo a mujeres de más de 80 años que viven solas ya que son más vulnerables. -Programas de empleo. Se han hecho 28 contrataciones, a jornada completa dentro de programas de empleo.</p> <p><b>HAZ/SAC</b> -Por primera vez se cuenta con el servicio durante todo el día. Lunes y jueves en horario continuado 08:00-19:00. En principio será durante un año para ver la respuesta de la ciudadanía. -La idea es convertir al SAC en una ventanilla única.</p> <p><b>ANTZOKIA</b> -Es uno de los proyectos culturales previstos en Llodio. En este momento se está convocando el concurso de ideas, hasta el 4 de marzo. Luego para finales de mayo se sabrá cuál es el proyecto final para el Antzokia en Alzarrate. 336.501€</p> <p><b>LAMUZA PARKEA</b> -Confirmar que se han rehabilitado dos edificios con financiación foral. -La licitación está en marcha la obra empezará en verano.. Se ejecutará la primera fase de la nueva Kultur Etxea.</p> <p><b>INSTALACIONES DEPORTIVAS</b> - Polideportivo la Granja. Se está redactando el proyecto de accesibilidad peatonal. Luego, se planteará la subvención a la Diputación.</p>



	<p>- Gardea. Bi <u>padel pista berri</u> instalatu dira; asko erabili eta erabiltzen dira. Arrakasta handia.</p> <p><u>Hockey kantzua</u>. Kantzuko argiztapena aldatu da. Inbertsioa: 55.000€ BEZ barne.</p> <p>Tenis <u>kantzuko estalkia</u>. Kantzua estaltzeko proiektua idazten ari dira.</p> <p>Calistenia parkea. Latorro. Berehala hasiko dira obrak.</p> <p>Aretako frontoia. Berotze-instalazioa aldatuko da.</p> <p>Ellakuri. Belar naturala artifizialarekin ordeztu da. Aldagelak egin dira.</p> <p>San Martin. Aldagelak eta instalazio guztiak eraberritzeko proiektua martxan da.</p>	<p>- Gardea. Se instalaron dos <u>pistas nuevas de pádel</u>, han tenido y tienen mucho uso. Todo un éxito.</p> <p>La <u>cancha de Hockey</u>. Cambio en la iluminación del campo. Inversión: 55.000€ IVA incl.</p> <p>La cubierta de la <u>cancha de tenis</u>. Se está redactando el proyecto para poder cubrirla.</p> <p>Parque de Calistenia. Latorro. El inicio de las obras es inminente.</p> <p>Frontón de Areta. Cambio en la instalación de calefacción.</p> <p>Ellakuri. Se ha sustituido la hierba natural por hierba artificial. Se han habilitado los vestuarios.</p> <p>San Martín. Se ha iniciado el proyecto de reforma de los vestuarios, y de todas las instalaciones.</p>
	<p><b>3_ Auzoko gaiak</b></p> <p><b>ALDAPETA PARKEA</b> Partzialki eraberritu da.</p> <p><b>GARDEAKO KIROLGUNEA</b> Tenis kantzuko proiektua idazte-fasean dago. Padel pistak hobetzeko proposamenak iristen dira oraindik.</p> <p><b>ASFALTATZEAK</b> Asfaltatze berriak leku desberdinetan: Beldui, Industrialdea, Goikoetxe, Laura tabernaren inguruan.</p> <p><b>GARDEAGOTXI</b> Urak bideratu dira.</p> <p><b>BESTE HOBEKUNTZA BATZUK</b> -Zerabideak beheratu dira oinezkoen joan-etorriak errazteko.. -Autopistaren azpiko tuneleko horma hori birgaituko da, tematika zehatz batekin eta</p>	<p><b>3_ Cuestiones del barrio</b></p> <p><b>PARQUE ALDAPETA</b> Se ha reformado en parte.</p> <p><b>ZONA DEPORTIVA DE GARDEA</b> Se está redactando el proyecto de la cubierta de la cancha de tenis. Siguen llegando propuestas para mejorar las pistas de pádel.</p> <p><b>ASFALTADOS</b> Nuevos asfaltados en diferentes zonas: Beldui, Industrialdea, Goikoetxe, zona Bar Laura.</p> <p><b>GARDEAGOTXI</b> Se han canalizado las aguas.</p> <p><b>OTRAS MEJORAS</b> -Se han rebajado los pasos de cebra para facilitar la movilidad de los peatones. -La pared del túnel debajo de la autopista, se va a condicionar ese muro, con una</p>



	<p>eta Berdintasun Arlotik antolatuko da.</p> <p>SANTA KURUTZ BASELIZA. 2014: 10.000€ 2015: 15.000€ 2016: 15.000€ 2017/2018: 57.571,68 € + AFaren diru-laguntza 2017rako (8.284,71 € )&gt; Arabako Lurralde Historikoko baselizen kontserbaziorako edo zaharbertitzeetarako esku-hartzeak sustatzeko diru-laguntza eskatzea: PORTIKOA.</p>	<p>temática concreta y se va a organizar desde el departamento de Igualdad.</p> <p>ERMITA DE SANTA CRUZ 2014: 10.000€ 2015: 15.000€ 2016: 15.000€ 2017/2018: 57.571,68 € + subvención DFA 2017 (8.284,71 € )&gt; Solicitud de subvención para fomentar las intervenciones de conservación y/o restauración de ermitas promovidas por las entidades locales del Territorio Histórico de Álava: PÓRTICO.</p>
<p><b>Galderak</b> Preguntas</p>	<p><b>Herritar</b> batek poza adierazi du parte hartze handiarengatik.</p> <p><b>1.- Herritar</b> batek adierazi du kezkatua dagoela auzoan gertatutako lapurretengatik eta lapurreta-saiakerengatik. Zortzi edo hamar daramatzate, berdin egunez zein gauez, auzokideak beldurtuta daude. Udalari eskatu dio zerbait bultzatzeko Udaltzaingoaren patruilak handik igarotzeko. Zahar asko daude, noiz edo noiz igande gauez eta jendea etxe barruan zegoela izan zen.</p> <p><b>Alkate-udalburuak</b> erantzun du Ertzaintza eta Udaltzaingoa koordinatzeko bilera aurreikusi dela, eta konpromisoa hartu du bileran gai hau ateratzeko.</p> <p>Erantsi du Laudioko delinkuentzia maila ez dela hain kezagarria, baina bileran gai horretaz hitz egingo duela.</p> <p><b>2.- Herritar</b> batek gogora ekarri du aurreko batzar batzuetan eskatu duela lehenengo puntua izatea aurreko aktaren onespena, dagokion bileran jorratutako gaiak berrikusteko moduan eta horien jarraipena egiteko moduan.</p> <p><b>Jonanek</b> erantzun du iaz egin zuen eskaera kontuan hartuta, mezu bidez eta whatsapp bidez akta bidali zitzaizela, eta gogoratu du</p>	<p><b>Vecino</b> se alegra de la alta participación de la asamblea.</p> <p><b>1.- Vecino</b> comenta su preocupación por los robos e intentos de robo cometidos en el barrio. Llevan ocho o diez, da igual día o noche, los vecinos están asustados. Pide al Ayuntamiento que lidere algo para poder patrullar la Policía Municipal. Hay mucha gente mayor, y la última vez fue un domingo a la noche con gente en la casa.</p> <p><b>Alcalde</b> responde que hay prevista una reunión de coordinación entre la Ertzaintza, Policía Municipal, y se compromete a sacar este tema en la reunión.</p> <p>Añade que el nivel de delincuencia en Laudio no es tan alarmante, pero en la reunión hablará de esa cuestión.</p> <p><b>2.- Vecino</b> recuerda que en anteriores asambleas ha pedido que el primer punto sea la aprobación del acta anterior, ya que de esa manera se puede hacer un repaso a los temas mencionados en la sesión correspondiente y de esta manera hacer un seguimiento.</p> <p><b>Jonan</b> responde que, haciendo caso a su petición el año anterior, se les envió por email y por whatsapp el acta, aunque</p>



akta guztiak webgunean daudela eskegita. Gainera, edozein herritarrek eska dezake kopia udaletxean.

Adierazi duenez, erabaki zen lehenengo puntu hori ez sartzea, batzarrak nahikotxo luzatu egiten zirelako. Kontuan hartuta akta atzi daitekeela, edozein interesdunek ekarri daiteke dena delako galdera egokitzat jotzen duen gaia berrikusteko.

**3.- Herritar** batek eskertu egin du Santa Kurutz baselizako portikoaren zaharberritzea. Hala ere, gustatuko litzaioke bideratu den prozesuaren berri izatea, eta errepikatu du herritarrei ez zaiela behar bezalako informazioa eman obra egiteko moduari buruz; atsekabea adierazi du horrengatik.

**Jonanek** esan du denek dakitela zer den auzolana egitea bertoko jendearekin, auzokideen arteko topagune bat berreskuratzea ere badela. 2014az geroztik beti egon da partida bat auzolanerako. 2017/2018an ondare historikoaren birgaitzea egin zen. Gogora ekarri duenez, 2017ko urriko bileran deialdiaren baldintzak aurkeztu ziren.

**4.- Herritar** bat kexu da Gardeagotxiko bidearen egoeraz. Bidea arrakalaz betea dago eta estua da. Bakoitzak berea konpontzen du, eta badirudi gainerakoak ez duela axola. Hustubidea altxatu da eta zulo handiak daude. Eskatu du handik igarotzeko ikus dezaten zein egoera txarrean dagoen.

**Jonanek** gogora ekarri du Udalak milioiak gastatu dituela landa-eremuko nahiz hiriguneko asfaltatuak egiteko, baina zenbatekoa txikiagoa izan dela landa-eremurako. Lehenetasunen arabera konpontzen saiatu dira. Hemen gaia atera denez, 2019-2020 aldian tarte hori egiteko konpromisoa hartu dute, posible bada.

recuerda que todas ellas están colgadas en la página web. Además, cualquier vecino o vecina puede pedir una copia en el propio ayuntamiento.

Comenta que se decidió no incluir ese punto primero ya que las asambleas se alargaban considerablemente. Teniendo en cuenta que se tiene acceso al acta, cualquier interesado puede traer aquí la pregunta que crea conveniente para su revisión.

**3.- Vecino** agradece la labor de restauración del pórtico de la Ermita de Santa Cruz. Aun así, le gustaría haber tenido conocimiento del proceso que se ha llevado a cabo, repite que los vecinos no han sido informados de cómo se iba a realizar la obra, y manifiesta su decepción.

**Jonan** dice que ya saben todos lo que es un Auzolan con la gente de la zona, recuperarlo como punto de encuentro entre los vecinos. Desde el 2014 siempre ha habido una partida para ese Auzolan. En 2017/2018 se hizo una rehabilitación de patrimonio histórico. Recuerda que en la reunión de octubre de 2017 se presentaron las condiciones de la convocatoria.

**4.- Vecina** se queja del estado del camino de Gardeagotxi. El camino está rajado, y es estrecho. Cada uno arregla lo suyo, y parece que no importa lo demás. El desagüe se ha levantado y hay socavones. Les pide que se den una vuelta para ver el mal estado en el que se encuentra.

**Jonan** recuerda que el ayuntamiento ha gastado millones en asfaltados rurales y urbanos, la cantidad ha sido menor para la zona rural. Se ha procurado ir arreglando por orden de prioridad. Aquí ha surgido el tema, ahora en 2019-2020, cogen el compromiso de, si es posible, hacer ese tramo.



	<p><b>5.- Herritar</b> batek eskatu du Santa Kurutzerako sarbidea hobetzeko. Esan duenez, ehorzketa egun batean, gurpildun aulkian zihoan alargunak ezin izan zuen iritsi. Auzoan jende nagusia dago eta ez du sarbide egokirik.</p> <p><b>Jonanek</b> erantzun du aztertu egin daitekeela, baina, hala ere, elizarekin hitz egin beharko dela haiek ere lagun dezaten.</p> <p><b>6.- Herritar</b> batek berriro eskatu du edukiontzi berde bat, inausketen hondakinetarako eta abar, Latorron eta Ugarten daudenak bezala.</p> <p><b>Alkate-udalburuak</b> konpostatzeari buruzko gai hau bera Arrañoako batzarrean atera zela. Planteatu daiteke, baina zerotik hasi beharko lukete, auzokideentzako ikastaroak eta abarrak barne. Aztertuko da. Edukiontzari dagokionez, Udalak berak erantzun duenez, planteatu egingo da</p> <p><b>Asierrek</b> erantsi du hau bezalako esparru batean, edukiontzi batek ez lukeela balioko, edukiontzi multzoa beharko litzateke.</p> <p><b>7.- Herritar</b> batek galdetu du ea aukerarik dagoen Garbiguneko muga <math>1\text{ m}^3</math> <math>3\text{ m}^3</math>-ra igotzeko, oso gutxi iruditzen zaiolako egungo bolumena.</p> <p><b>Alkate-udalburuak</b> erantzun du Garbigunea Kuadrillak kudeatzen duela, eta konpromisoa hartu du hurrengo bileran proposatzeko.</p> <p><b>8.- Herritar</b> batek aipatu du Santa Kurutzetik igarotzen den errekatxoaren egoera. Azken uharretan ibaia zubitik gora egin du, errekatxoak gainezka egiten du. Gehitu du ez dagoela barandirik han, eta gogora ekarri du eskaera bat egin duela dagoeneko.</p> <p><b>Asierrek</b> erantzun du finka horretan,</p>	<p><b>5.- Vecina</b> solicita que se mejore el acceso a la iglesia de santa Cruz. Comenta cómo un día en un funeral, el viudo en silla de ruedas no podía acceder. Hay mucha gente mayor en el barrio y no tiene el acceso adecuado.</p> <p><b>Jonan</b> responde que se puede valorar, pero que, de todas maneras, habrá que hablar con la iglesia para que colabore.</p> <p><b>6.- Vecino</b> pide de nuevo un contenedor verde, para podas y demás, como los que hay en la zona de Latorro y Ugarte.</p> <p><b>Alcalde</b> informa que este mismo sobre el compostaje tema salió en la asamblea de Arraño. Se puede plantear pero habría que empezar de cero, incluidos cursos para los vecinos, etc. Se valorará. En cuanto al contenedor, como corresponde al propio ayuntamiento, lo plantearemos.</p> <p><b>Asier</b> añade que en un ámbito como este, con tanto volumen, un contenedor no valdría, habría que plantear una batería de contenedores.</p> <p><b>7.- Vecino</b> pregunta sobre la posibilidad de subir la cota de <math>1\text{ m}^3</math> a <math>3\text{ m}^3</math> en el Garbigune, le parece muy poco el volumen actual.</p> <p><b>Alcalde</b> responde que el Garbigune lo gestiona la Cuadrilla, y se compromete a proponerlo en la próxima reunión.</p> <p><b>8.- Vecina</b> habla sobre el estado del riachuelo que pasa por Santa Cruz. En las últimas crecidas, el río ha subido por encima del puente, ese riachuelo se está desbordando. Añade que no hay barandillas en el río, y recuerda que ya ha hecho una solicitud.</p> <p><b>Asier</b> responde que esa finca, al lado del</p>
--	---	--



<p>zurezko zubiaren ondokoan, baseliza baino lehenago dagoen horretan, barandak falta direla, baina esan du URAK ez duela baimenik emango barandak ipintzeko.</p> <p><b>Jonanek</b> gehitu du Laudio Udalak ez duela eskumenik ibilguan, URAK esaten diola Udalari zer egin dezakeen zehatz-mehatz. Kexaren berri emango dugu.</p> <p><b>9.- Herritar</b> batek gehitu du, gainera, badagoela haren hormako sasiak garbitzen ez dituen auzokidea bat, eta berez nahiko estua den errepideko igarobidea oztopatzen duela.</p> <p>Asierrek gogora ekarri du egikaritze-agindu bat bidali zitzaiola auzokideari, eta ez dakitela zer egin den.</p> <p><b>10.- Herritar</b> batek tona askotako kamioak aipatu ditu. Soluzio bat eskatzen du.</p> <p>Ametsek aparkalekuari buruz erantzun du egiten ari dela, baina Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundia trabak jartzen ari direla. Aparkalekua ez zen bideragarria zati horretan.</p> <p><b>11.- Herritar</b> batek Santa Kurutzeko geralekuaren egoera tamalgarria aipatu du. Eskailerak ez daude egoera txarrean, ez dago nahikoa argi, eta ez dago eskulekurik. Horri dagokionez, gogoan du eskaera bat egin zuela. Erantzuna izan zen agian RENFErena izango zela.</p> <p>Egia esan, zati bat egokitu da, baina betiko eskailerena berdin jarraitzen du.</p> <p><b>Jonanek</b> erantzun du RENFE Aretako obrak egiten ari dela, hori lehenetsi zutela han gertatu zen istripu hilgarriaren ondorioz.. Datozen egunotan bilduko dira arduradunarekin, eta obraren lizitazioa urteko bigarren seihilekoan hasteko asmoa zutenez, galdetuko diote noiz aurreikusi</p>	<p>puente de madera, antes de la ermita, faltan las barandillas, pero asegura que URA no va a permitir poner barandilla.</p> <p><b>Jonan</b> añade que el Ayuntamiento de Llodio no tiene competencia sobre los cauce, URA dice al ayuntamiento exactamente lo se puede hacer. Trasladaremos la queja.</p> <p><b>9.- Vecina</b> añade que, además, hay un vecino que no limpia las zarzas de su pared, y entorpece el paso por la carretera, que ya de por sí es estrecha.</p> <p>Asier recuerda que se mandó una orden de ejecución al vecino, y no saben qué se ha hecho.</p> <p><b>10.- Vecina</b> camiones de toneladas pesadas. Quiere una solución.</p> <p>Ametz responde sobre el aparcamiento, que se está haciendo, pero el Gobierno Vasco y la Diputación Foral están poniendo trabas. El aparcamiento no era viable en ese tramo.</p> <p><b>11.- Vecina</b> comenta el lamentable estado del apeadero de Santa Cruz. Las escaleras están en mal estado, no hay luz suficiente, y no hay pasamanos. Recuerda que sobre este tema, ya hizo una solicitud. La respuesta fue que igual pertenecía a Renfe.</p> <p>La verdad es que han acondicionado una parte, y la de las escaleraa de siempre, sigue igual de mal.</p> <p><b>Jonan</b> responde que Renfe está acometiendo las obras en la estación de Areta, se priorizó por el accidente mortal ocurrido. En los próximos días estarán con el responsable, y como tenían el compromiso de empezar la licitación de la obra el segundo semestre de este año, le</p>
---	--





	<p>дутен besteari heltzea.</p> <p><b>Herritar</b> batek adierazi du hobeto ikusteko argia ipini daitekeela eskaileran bertan.</p> <p><b>12.-</b> Gardeagotxiko <b>herritar</b> batek gogora ekarri du urrian obra egin zela. Azaroaren erdian gutun bat jaso zuen esanez obra hasiko zela, baina obra dagoeneko bukatua zegoen. Galdetu du ea zer gertatu den. <b>Asierrek</b> erantzun du ia obra hastearekin batera egin zela, baina izapide administratiboek euren denbora behar dutela.</p> <p><b>13.-</b> <b>Herritar</b> batek gogorarazi du lehenago etxartea garbitzen zela, eta orain ez. Ekainean esan ziguten ikusiko zutela, konpondu zitekeela, baina ez dute egin. Hezetasunak daude.</p> <p><b>Asierrek</b> 9.eko hezetasunak aipatu ditu. Bidean, egin daitekeena da ura bildu, baina ezin da ezer egin bideko hezetasunarekin. Ikustera joateko konpromisoa hartu du, eta esan du interesdunekin geratzeko deituko dutela.</p> <p><b>Herritar</b> batek galdetu du ura bidearen erditik bideratu ote daitekeen, ez alde batetik.</p> <p><b>14.</b> <b>Herritar</b> batek etxean urarekin dituen arazoak aipatu ditu; euria egiten duenean ura zuzenean etxean sartzen zaio. Bere garaian esan zioten konponduko zutela, baina ez zegoen dirurik, eta ez da egin.</p> <p><b>15.-</b> <b>Herritar</b> batek esan du bere baserria dela Laudion bakarra argindarra ipintzeko laguntzarik izan ez duena, dena egin behar izan zutela euren kabuz. (Urretxi-Lautxo). EZ aseguru ordaintzen ari da bere jabetzakoa delako. Irailean eskatu zuen udaletxean Iberdrolak linea bere gain hartzea. Esan duenez, Udalaren erantzunaren zain jarraitzen du, baina bere</p>	<p>preguntarán cuándo tienen previsto hacerlo.</p> <p><b>Vecino</b> comenta que para mejorar la visibilidad se puede poner una luz en la misma escalera.</p> <p><b>12.-</b> <b>Vecina</b> de Gardeagotxi, recuerda que en octubre se hizo una obra. A mitad de noviembre recibió una carta diciendo que la obra iba a empezar, pero la obra ya estaba terminada. Pregunta qué pasó. <b>Asier</b> contesta que se hizo prácticamente al mismo tiempo que se empezó la obra, pero los trámites administrativos tienen sus tiempos.</p> <p><b>13.-</b> <b>Vecina</b> recuerda que antes se hacía la limpieza del caño, y ahora no se hace. En junio nos dijeron que se iba a mirar, que se podía arreglar, y no se ha hecho. Hay humedades.</p> <p><b>Asier</b> habla sobre las humedades en el número 9. En el camino, lo que se puede recoger es el agua, pero no se puede hacer nada con la humedad en el camino. Se compromete a ir a verlo, que les llamarán para quedar con los interesados.</p> <p><b>Vecina</b> pregunta si hay posibilidad de canalizar el agua por el centro del camino, no por el costado.</p> <p><b>14.</b> <b>Vecino</b> comenta los problemas de agua que tiene en su domicilio, cuando llueve el agua se le mete directamente en casa. En su día le dijeron que lo iban a arreglar, pero no había presupuesto, y no se ha hecho.</p> <p><b>15.-</b> <b>Vecino</b> dice que su caserío es el único de Llodio que no ha tenido ayuda para poner la electricidad, que lo tuvieron que hacer todo ellos. (Urretxi-Lautxo). Están pagando el seguro de RC porque es de su propiedad. En setiembre solicito en el Ayuntamiento que Iberdrola se hiciera cargo de la línea. Comenta que sigue a la espera de la contestación del</p>
--	---	---





<p>kabuz moldatu dela eta zuzenean Iberdrolari eskatu diola. Kasu honetan, Iberdrolak erantzun dio baietz, egingo dutela.</p> <p><b>16.- Herritar</b> batek ezinegonan adierazi du ez duelako borondate politikorik ikusten OHZrako edo beste zergetarako diru-laguntzarik emateko. Gogora ekarri du Gardea landa-eremua dela.</p> <p><b>17.- Herritar</b> batek Gardeagotxi bideari buruz hitz egin du, gorako bidean arrakalak daudelako. Gogora ekarri du gutuna bidali zuela eta ez diotela erantzun. Badaki Obra eta Zerbitzuetako buruak mahai gainean duela, baina oraindik ez zaio erantzun. <b>Jonanek</b> gogoratu dio izandako bilerak izan direla erantzunak.</p> <p><b>18.- Herritar</b> batek esan du Olarteko baserrirako sarbidea ahaztua dagoela, sasiak daudela, eta mesedez eskatu du garbitzeko.</p> <p><b>19.- Herritar</b> batek esan du Zabaleko zangak, 30 cm-koak direla, eta ez diotela erantzun. Erantzuteko eskatu du.</p> <p><b>20.- Herritar</b> batek esan du Santa Kurutzeko ispilua, bidegurutzean dagoena, behin baino gehiagotan konpondu duela Udalak. Galdetu du ea beste aldean jarri dezaketen edo beste konponbide bat eman, kamioiek behin baino gehiagotan apurtzen dutelako.</p> <p><b>21.- Herritar</b> batek eskatu du Santa Kurutzeko asfaltoa konpontzeko.</p> <p><b>22.- Herritar</b> batek aldaketa eskatu du Gardeagotxiko seinaleztapenean, ez daudelako ondo eginda Zabaleko norabideak...</p> <p><b>23.- Herritar</b> batek adierazi du parkean, Aguadon, goiko aldean, kristal itsatsiak daudela, eta eskatu du kentzeko. <b>Jonanek</b> erantzun du egin daitekeen gauza</p>	<p>ayuntamiento, pero que se ha buscado las castañas y se lo ha pedido directamente a Iberdrola. En este caso, Iberdrola le ha contestado que sí, que lo van a hacer.</p> <p><b>16.- Vecino</b> manifiesta su malestar por la falta de voluntad política para dar subvenciones sobre el IBI y otros impuestos. Recuerda que Gardea es una zona rural.</p> <p><b>17.- Vecino</b> habla sobre el camino de Gardeagotxi, subiendo, hay grietas. Recuerda que mandó una carta y no se le ha contestado. Sabe que el jefe de Obras y Servicios lo tiene encima de la mesa, pero todavía no se le ha contestado. <b>Jonan</b> le recuerda que la respuesta son las varias reuniones que han mantenido.</p> <p><b>18.- Vecino</b> comenta que el acceso al caserío de Olarte está olvidado, que hay zarzas, y pide por favor que se limpie.</p> <p><b>19.- Vecino</b> dice que las zanjas de Zabale, de 30cm, no se ha tenido contestación, y solicita una respuesta.</p> <p><b>20.- Vecino</b> comenta que el espejo de Santa Cruz, el que está en el cruce, el ayuntamiento lo ha arreglado varias veces. Pregunta si se puede cambiar de lado o que busquen otra solución, ya que los camiones lo rompen constantemente.</p> <p><b>21.- Vecino</b> solicita que arreglen el asfaltado de Santa Cruz.</p> <p><b>22.- Vecino</b> solicita un cambio en la señalización que va a Gardeagotxi, ya que no están bien puestas las direcciones a Zabale...</p> <p><b>23.- Vecina</b> comenta que en el parque, Aguado, en la parte de arriba, hay cristales pegados y pide su retirada. <b>Jonan</b> responde que lo único que pueden</p>
---	--



<p>bakarra dela jabearekin harremanetan jartzea kendu ditzan, egikaritze agindu bat emanda.</p> <p><b>24.- Herritar</b> batek konponketa egin du Salcedon, zuhaitzak bota zituzten eta eremu bat libre geratu zen, eta orain ura errepidera joan da. Eskatu du aparejadorea hara joateko, eta azalduko dio.</p> <p><b>Jonanek</b> jaso du eta erantzun du begiratuko dutela.</p> <p><b>25.- Herritar</b> batek aipatu du autobideko zubia pintadaz betea dagoela. Galdetu du zerbait egin daitekeen.</p> <p><b>Ametsek</b> erantzun du aurkezpenean esan bezala, hezetasunen gaia begiratzeko ari direla, eta gero pintatuko dela genero-indarkeria arbuizatzeko tematikarekin.</p> <p><b>26.- Herritar</b> batek gogorarazi du osoko bilkura batean Goikoetxen hodia aldatzea onetsi zela.</p> <p><b>Ametsek</b> berretsi du osokoan onetsitakoa Latorrorako baino ez zela, baina ez zen inongo erabakirik hartu.</p> <p><b>27.- Herritar</b> batek eskatu du parkean zurezko baranda ipintzen jarraitzeko, badirudielako bukatu barik dagoela.</p> <p><b>28.- Herritar</b> batek eskatu du ate txiki bat egiteko barandan, ibaiari begira, badaki ezin dela ibairako sarbidea itxi, baina hamar metro falta dira. Begiratzeko eskatu du.</p> <p><b>29.- Herritar</b> batek eskatu du airearen kalitatea neurtzeko. Enpresa berriak instalatu dira eta ordu batzuetan emisio susmagarriak daude.</p> <p><b>Jonanek</b> esan du zalantzak eragin dituzten enpresei konponbideak bilatzera behartu dituela Udaleko Ingurumen Arloak.</p>	<p>hacer es ponerse en contacto con el propietario para que proceda a su eliminación, con una orden de ejecución.</p> <p><b>24.- Vecino</b> comenta que se ha hecho un arreglo en Salcedo, que tiraron árboles y que ha quedado una zona libre, y ahora el agua se ha desviado a la carretera. Solicita que vaya el aparejador y se lo explicará.</p> <p><b>Jonan</b> toma nota y responde que lo mirarán.</p> <p><b>25.- Vecino</b> comenta que el puente de la autovía está lleno de pintadas. Pregunta si se puede hacer algo.</p> <p><b>Ametsek</b> responde que, como ha comentado en la presentación, se está mirando el tema de las humedades, y luego se pintará con la temática sobre el rechazo la violencia de género.</p> <p><b>26.- Vecino</b> recuerda que en un Pleno se aprobó hacer un cambio de la tubería en Goikoetxe.</p> <p><b>Ametsek</b> ratifica que lo acordado en Pleno sólo afectaba a Latorro, pero no se tomó ninguna decisión.</p> <p><b>27.- Vecino</b> solicita que se siga poniendo la barandilla de madera en el parque, parece que está sin terminar.</p> <p><b>28.- Vecino</b> pide que se haga una puerta pequeña en la barandilla cara al río, sabe que no se puede cerrar el acceso al río, pero faltan diez metros. Solicita que lo miren.</p> <p><b>29.- Vecino</b> pide que miren la calidad del aire. Se han instalado nuevas empresas y según los horarios hay emisiones sospechosas.</p> <p><b>Jonan</b> responde que en empresas que hay dudas, el Dpto. de Medio Ambiente del Ayuntamiento ha obligado a la empresa a mirar soluciones.</p>
---	---



	<p><b>Herritar</b> batek esan du udaltzainei behin baino gehiagotan eman diela abisua, zehazki, enpresa batek atea irekitzen dituelako kea irteten uzteko.</p> <p><b>30.- Herritar</b> batek gogora ekarri du 60 urte izan ditzaketela hodi batzuek, uralitazkoak direla eta ez direla aldatu.</p> <p><b>Asierrek</b> erantzun du ez dagoela uralitazko hodian gaineko debekurik, ez dagoela denak kentzeko betebeharririk. Ez dago arriskurik, manipulatzean baino ez du minbizia sortzen, arnastean.</p> <p>Gehitu du hodiekin eralzionatutako obra guztietan, ezarritako protokolo guztiekin egiten dela, eta halako kasuetan bai, hodia ordeztzen da beste material batez egindako batekin.</p> <p><b>Alkate-udalburuak</b> esan du obra bat egiten bada, ordeztzen direla, baina ia ezinezkoa dela hodi-sare osoa aldatzea.</p> <p><b>31.- Herritarra</b> markesina bat eskatu du Tubacex aurreko bus geltokian. Esna du dagoeneko eskatu egin dela, baina ez diotela erantzun.</p> <p><b>Ametsek</b> erantzun du Eusko Jaurlaritzak dela lineak proposatzen dituenak. Edonola ere, ez dute horren berri, ez da idatzizko eskaerarik jaso.</p> <p><b>Herritar</b> batek proposatu du Eusko Jaurlaritzarekin hitz egitea markesina bat ipintzeko.</p> <p><b>Ametsek</b> adierazi du dagoeneko hitz egin dela Hezkuntza Saileko ordezkari batekin, eta gai hori joratu dela, baina haiek erantzun behar dutela. Berriro esango diete.</p> <p><b>32.- Herritar</b> batek nagusientzako ariketa</p>	<p><b>Vecino</b> dice que ya ha avisado a los municipales en varias ocasiones, ya que, una empresa en concreto, abre las puertas para facilitar la salida de humos.</p> <p><b>30.- Vecino</b> recuerda que hay tuberías que pueden tener 60 años, que son de uralita y que no se han cambiado.</p> <p><b>Asier</b> responde que no hay prohibición de tuberías de uralita, no hay obligación de retirar todo lo que hay. No hay peligro, ya que sólo es cancerígeno en su manipulación, cuando se respira.</p> <p>Añade que en todas las obras que se realizan de tuberías, se hace con todos los protocolos establecidos, y en esos casos sí se cambia la tubería por una nueva de otro material.</p> <p><b>Alcalde</b> comenta que si se hace una obra, se procede a su sustitución, pero es prácticamente imposible cambiar toda la red de tuberías.</p> <p><b>31.- Vecino</b> pide una marquesina de autobús enfrente de Tubacex. Dice que ya la ha solicitado con anterioridad pero no le han contestado.</p> <p><b>Ametsek</b> responde que es el Gobierno Vasco el que propone las líneas. De todas maneras, no tienen conocimiento de ello, no se ha recibido ninguna solicitud por escrito.</p> <p><b>Vecino</b> propone hablar con Gobierno Vasco para poder poner la marquesina.</p> <p><b>Ametsek</b> comenta que ya se ha hablado con la Delegada de Educación, y este tema ha sido tratado pero son ellos los que tienen que contestar. Lo trasladarán de nuevo.</p> <p><b>32.- Vecino</b> solicita un parque de ejercicios</p>
--	--	---



	<p>parke bat eskatu du aurreko parkean.</p> <p><b>Asierrek</b> adierazi du errepidearen beste aldean badagoela ariketak egiteko parke bat.</p> <p><b>33.- Herritar</b> batek esan du Gardean jaiotakoan bazkaria egiten zela pilotalekuan, eta horretarako baimena eskatu zela. Eskatu du pilotalekuaren alde batean atea jartzea.</p> <p><b>Alkate-udalburuak</b> erantzun du aukera aztertu zela, baina estaliko denez, ezin dela. Edukiera dela eta, debekatua dago.</p> <p><b>Asierrek</b> erantsi du ezin dela ate bakarra izan, egokiena proiektu osoa egitea litzatekeela, eta hori dagoeneko beste kontu bat da.</p> <p><b>34.- Herritar</b> batek kezka adierazi du kurumino edo liztor asiarra dela eta, eta galdetu du zein den prozedura kentzeko.</p> <p><b>Asierrek</b> erantzun dio Udalak suhiltzaileei jakinarazten diela, badirudiela neguan ez daudela aktibo, eta beraz zuzenean hiltzen uzten zaiela. Habiak hutsik badaude, uzten dituzte, eta udan betetzen bada, kentzen dute.</p> <p><b>35.- Herritar</b> batek eskatu du zebrabideak jartzeko Presakon eta Galtzaganetan.</p> <p><b>Asierrek</b> erantzun du gaia aztertuko dela.</p> <p><b>36.- Herritar</b> batek bidearen eraberritzea aipatu du; hamar urte daramatzate eta bideak okerrera egin du, mendia nahiko jaitsi da. Gogoratu du auzokideak ez balira ibiliko gutxika konpontzen eta adabakiak ipintzen bidearen egitura askoz okerrago legokeela.</p> <p><b>Jonanek</b> erantzun du bidea konponduko dela, berretsi du osoki konponduko dela, ez soilik eragindako zonaldeak.</p>	<p>para mayores en el parque de enfrente.</p> <p><b>Asier</b> comenta que al otro lado de la carretera hay ya un parque para ejercitarse.</p> <p><b>33.- Vecino</b> comenta que se solía hacer la comida de los nacidos en Gardea en el frontón, y se solicitó permiso para ello. Pide poner una puerta lateral en el frontón.</p> <p><b>Alcalde</b> responde que se pensó, pero como se va a proceder a cubrir, no se puede. Por tema de aforo no está permitido.</p> <p><b>Asier</b> añade que no se puede sólo una puerta, lo correcto sería hacer un proyecto completo, y eso ya es otra cosa.</p> <p><b>34.- Vecino</b> da a conocer su preocupación por la avispa asiática y pregunta sobre el procedimiento para eliminarla.</p> <p><b>Asier</b> responde que el ayuntamiento lo comunica a los bomberos, que en invierno se entiende que no están activas, y directamente se deja que se mueran. El nido lo dejan si está vacío, y si en verano hay actividad, lo retiran.</p> <p><b>35.- Vecino</b> pide que se pongan pasos de cebra en Presako y Galtzaganeta.</p> <p><b>Asier</b> responde que se estudiará su colocación.</p> <p><b>36.- Vecino</b> habla sobre la reforma del camino, llevan diez años y el camino va a peor, se ha bajado bastante el monte. Recuerda que si el camino no está estructuralmente peor es porque los vecinos lo estamos arreglando poco a poco, parcheando.</p> <p><b>Jonan</b> responde que el camino se va a arreglar, confirma que se va a proceder a su arreglo por completo, no sólo zonas afectadas.</p>
--	---	---



	<p><b>37.-Herritar</b> batek galdetu du Telleriarako sarreran dagoen zebrabidea mugitu egin daitekeela.</p> <p>Oinezkoentzako sarbidea txarto dago, eta marrak margotzeko eskatu du joan-etorriak errazteko.</p> <p><b>38.- Herritar</b> batek eskatu du beira eta ontzietarako edukiontziak jartzeko. Adierazi du kartoirakoa baino ez dutela.</p> <p><b>39.- Herritar</b> batek galdetu du 8-10 zenbakien aurreko ortuan aparkaleku bat egin ote litekeen.</p> <p><b>40.- Herritar</b> batek aitortu du padel pistak erabateko arrakasta izan direla, urtebete daramatzatela eta tamalez itoginak dituztela.</p> <p>Asierrek erantzun du instalazioaz arduratu zen enpresa beste gauza batzuk konpontzera joan izan dela, baina esango diela ikustera joateko, oraindik bermea indarrean dagoelako.</p> <p><b>41.- Herritar</b> batek aipatu du, gainera, tenis pistan arrakalak agertu direla, ez soilik horman, pista osoan baizik.</p> <p><b>Asierrek</b> erantzun du sareko arrakala dilatazio-juntura dela. Hala ere, arrakala gehiago badaude, begiratzera joango dira.</p>	<p><b>37.-Vecino</b> pregunta si se puede desplazar el paso de cebra de la entrada a Tejería.</p> <p>El acceso para peatones está mal, y solicita pintar unas rayas para facilitar el paso.</p> <p><b>38.- Vecino</b> pide la colocación de contenedores de vidrio y envases. Comenta que solo tienen de basura y de cartón.</p> <p><b>39.- Vecino</b> pregunta que si en la huerta de enfrente del 8-10 se podría hacer un aparcamiento.</p> <p><b>40.- Vecino</b> reconoce que las pistas de pádel han sido todo un éxito, que llevan un año y por desgracia tienen goteras.</p> <p>Asier responde que la empresa que se encargó de su instalación ha ido a arreglar otras cosas, y le comentará que vayan a mirarlo ya que todavía se encuentra en garantía.</p> <p><b>41.- Vecino</b> comenta, además, que en la pista de tenis han aparecido grietas, no solo en la zona de la red, ya están en toda la pista.</p> <p><b>Asier</b> responde que la grieta de la red es una junta de dilatación. Aun así, si hay más grietas, lo mirarán.</p>
--	---	---